

---

---

# OTO TA POTOTO

---

---

## **TORNILLOAK PALTA**

---

Egun aretan ez zegoen gozo gure Oto.

Asarre ebillen eta ez zan gutxigorako: Renault 4-4 bat eukan eta kurpil bateko lau tornilloak galdu batera. Bermeo'ko zoro-etxearen aurrean gertatuz, an ebillen batetik bestera, nolan jokatu asma eziñik.

Alako batean zoro-etxeke leio batetik, zoro bat oska:

– Zer dok, txo, ain larri ibiltzeko?

– Zera, kurpil bateko lau tornilloak galdu batera.

– Errubera bateko lau tornilloak?

– Bai, eta ez dakit zer egin.

– Gauza gutxiatik larritzen az...

– Gauza gutxi? Ator i bera eta konpondu, ain erreza ba'da?

– Nik bera joaterik ez dot; bañan zer ori arin konponduko neuke.

– Laister konpondu? Nundik?

– Begira, jauna: osorik dauden iru kurpilletik tornillo bana kendu. Orra iru tornillo. Iru tornilloekin tornillo gabeko kurpilla lotu eta orrela lau erruberek izango dabez iruna tornillo. Ibiltzeko aña izango az. Ez al da gauza erreza?

Zoroaren jakinduria ikusita, Oto egoen ao-zabalik arrituta gora begira eta onela diotza:

– Nolan sartun zaitue or barruan? Zergaitik?

– Zoroa nazelako; ez tontoa!

## **SANTU BERRIA**

---

Donosti'ra joian Oto trenean Santotomasetan txistorra jatera. Zantar xamarra txamorrota edo... Dana dala, gerra odorena zan eta eldu jako poliziko bat:

– Documentación!

– Zer?

– Documentación!

– Ez dot ulertzen.

– Que me muestre la documentación!

– Zer ote dok ori?

Alako batean, aurrean eukan bibote txikidun gizaseme eskas arek, bere txamarraren solapa jasoaz, polizi-ikurra erakusten dio. Oto'k buruari atz egiñez onela diño berekasa:

– Orain be badogu santu berriren bat.

Jeiki aulkitik eta serio-serio, medalla aretan emoten doutsu musu eder bat.

## **EULIAK KAFEAN**

---

– Artungo al dogu kafetxo bana?

– Bapo, bapo, gustora.

– Ia apur bat esnatzen garien, sargori be dagota.

– Nora joango gara?

– Café Oriental'era.

Oto, Pototo eta don Premin albeiteroa alkarrekin ebiltzan Donostia'n. Café Oriental'era joan dira kafea artzera.

Eguna bero be bai eta euli asko maai-inguruan. Moltsoa zurrubilloan. Motelduta egozan euliok eta jausi jakez

batzuek kafetara.

Don Premin txaloka deadar egiten morroiari:

– Txo, ekarri beste kafe bat.

Pototok kutxarillagaz eulia atarata, kafea artun dau onela esanaz:

– Ez noia beste kafe bat ordaintzera euli batengatik.

Oto'k katillua kirtenetik artunda, onela diño:

– Eulitxoa, anak bildu, barrura zoaz da!

## **LAU TXAMARROTE**

---

Kortan txekor-sail ederra eukan Oto'k eta Jerolimo arakiña etorri zan goiz aretan bat eroatera. Astelena zala ganadua iltzeko eguna, eta astelenean joango zala txekorera eroatera...

Astelen-goiza. Egunsenti zoragarria etorren. Periko Fortuna astua lagun, ba doa erriruntz. Asto gañean txamarrote beltza, kiruzko alkandora zuri-zuria paparrean, pipa ezpañetan eta makilla eskuan.

Goi-arro doa zoriontsu.

Periko Fortuna makurgaitza zan, bañan kalerako usaiña artun ezker, nagusia baño pozago. txekorretik tirako zuan bai, ez bildurrik izan!

Mataderoko arazoak bete, gibela pañuelo batean jaso eta Manuel Abarkeroaren tabernara zuzen-zuzenean. Ainbeste neke pasata gero, ez al dau Oto nekazari berriak arnasa artzeko atsedean apur bat merezi, ala?

Bai orixe!

Arratsaldea aurrera, Oto tabernatik atara zanean.

Bero be bai.

Ez dakigu ziur berotasuna kanpotik ala barrutik zan!

Bear ba'da, bi aldetatik. Ez ote zan barrukoa kanpoko baño geiago izango? Dana dala, Oto bero joian eta txamarrota kendu eta asto gañean imiñi dau.

Bidea ez zan ain leuna eta txamarrota, astotik lurrera...

Pazintzi guztiaz, bizkarra makurtu eta txamarrota berriro asto-gañera.

Ez zuen txamarrota perpezioz imintzen, edo Periko Fortuna ebillen saltari, gauzea da txamarrota berriro lurrera joan zala.

– Beste txamarrote bat? Ba dozak bi.

Makurtu eta txamarrota astoaren bizkarrera.

Berotasuna burura igota ekarren. Bide traketza, arri-koskorak ugari, astoa saltari eta txamarrota berriro lurrera.

Beste txamarrote bat? Au dok zafria, au; sekula orrelakorik?

Artun lurretik txamarrota eta Perikoren gañera.

– Iru txamarrote!

Oto'ren etxea baño lenen Errota-txiki etorren eta ara eltzeko zubitxo bat.

Astoak mogimendu asko eta erori da berriro laugarren txamarrotea. Oto, txamarrotea lurrean ikusita, gelditu da aren aurrean tente:

– Beste txamarrote bat? Nik zertarako bear dodaz ainbeste txamarrote...?

Pentza eta egin: artun txamarrotea eta zubitik ibaira.